

AURKEZPENA

Zenbatetan atera zarete supermerkatutik pentsatutakoa baina gehiago gastatuta? Argi dago, erosketak egiterakoan, saskia betetzea geroz eta zailagoa dela. Jarduera hau errazteko helburuarekin eman diogu hasiera gure proiektuari.

Ohikoa bihurtzen ari da hilabete bukaerara iristeko arazoak izatea. Familia askoren errealitatea da honegatik kezkatuta bizitzea. Inflazioa oso presente dugu gure egunerokoan, dena geroz eta garestiagoa da eta prezioak ikaragarri igotzen ari dira. Hala ere, prezioak igo arren, langileen soldatek ez dute bera egiten. Soldatek lehen bezala jarraitzen dute eta prezioen igoerarekin egoera jasanezina bihurtzen ari da batzuen kasuan.



Eskaintza berrien bila ibiltzen gara beti, deskontuak eta kupoiak aprobetxatu nahian, geroz eta gutxiago ordaitzeko helburuarekin. Hala ere, ez dugu lortzen gutxiago ordaintzea, zoratzea baizik.



Ez al da ohikoa eta neketsua zuentzat supermerkatuek eskaintzen dizkiguten eskaintzen atzetik ibiltzea? Gelditu al zarete inoiz prezioen igoerarekin larrituta?

Gu, Asier, Lucía, Saioa eta Telmo, Urretxu-Zumarraga Ikastolako lehenengo batxilergoko ikasleak gara eta lau kideko talde bat osatu dugu proiektu hau burutzeko.

Aurretik aipatutako arazoa jasaten duten pertsoneri laguntzea da gure helburua. Hasiera batetik hau argi izan genuen, arazo honen aurrean irtenbide bat lortu nahi genuen, horretarako hainbat ideia partekatu ondoren, aplikazio bat sortzea eraginkorra zela iruditu zitzaigun. Hortaz, "Supermerkea" aplikazioa sortu genuen lauron artean, APP honen bidez eskainiko duguna bezeroen erosketa ahalik eta merkeena izateko laguntza da.